



Altzoko San Inazio jaiak ere hasi dira ate joka

BIHAR ▶ Buruhandien eta txistularien saioarekin ekingo diete herriko festei, bihar arratsaldean

EGITARAUA ▶ Zikiro jatea, sagardo eta txakolin dastaketa, bertsoak, herritarren arteko apustua... ▶ 5

IBARRA ▶

Otaño eta Mujika, txapela jantzi nahian

2. mailako Aizkolari Txapelketako finalean lehiatuko dira ▶ 6

L. GARCIA



Oraindik Santio jaien erdia falta da

VILLABONA ▶ Gaur, besteak beste, Zea Mays, txirindulariak eta Gaztetxe Eguna ▶ 4

ARESO ▶

Epailen erabakiekin kexu dira Aresoko tiralariak ▶ 7

TOLOSA ▶

Euskadiko Gazte Orkestraren kontzertuarekin ekingo diete Leidorreko kultur egitarauari

Bihar irekiko ditu ateak areto eraberrituak; inaugurazio ofiziala, irailaren 8an ▶ 2

LEITZA ▶

Atekabeltzen irekiera festa eginen dute etzi ▶ 7

HIRIGINTZA ▶

Euskadiko Gazte Orkestraren kontzertuarekin irekiko da Leidorreko kultur egitaraua

Bihar, 20:15ean, ia urtebetez itxita egon ondoren, atek zabalduko ditu berriz ere Leidor antzoki eraberrituak, aurre-inaugurazio berezi batekin

ESTI EZEIZA

Bihar, 20:15ean, Leidor areto berriak lehen kultur ekitaldia hartuko du. Euskadiko Gazte Orkestraren kontzertua, hain zuzen ere. Banda hau Kultura Saileko sustapenari esker, Tolosaldeko musika tresna jole gazteei, orkestra mailako prestakuntza eskaintzeko xedearekin sortu zen. Oraingoan Tolosaldearen 750. urteurrena aprobetxatuz, bi obra interpretatuko dituzte: Igor Stravinsky-ren *Udaberriaren sagaratzea*, eta Carl Maria von Weber-en *Der Freischütz* opera (*Isilpeko ehiztaria*). Kontzertu honetarako gonbidapenak Tolosaldeko Kultur Etxean eskura daitezke astean zehar goizez.

Hamar hilabete inguru joan dira Leidorrek atek itxi zituenetik. 2005eko uztailean, Tolosaldeko zinemasale talde batek antolatutako proiektuarekin agurtu zuten tolosaldeko aretoa, eta ordutik ez da ekitaldirik antolatu bertan.

Hasiera batean, aurreikuspenen arabera, ekainean jokatuko zen Abesbatzen Europako Sari Nagusirako amaitua egotea espero zuten, baina azken orduko arazo batzuk medio, lanak luzatu egin ziren. Hala, inaugurazio ofiziala irailaren 8an egingo badute ere, bihar motorrak berotzen hasteko aukera izango du antzoki eraberrituak.

Gipuzkoako bigarren eszenatoki handiena izango da Leidorrekoa; hori dela-eta gaitzaren antzoki handiekiko sinergia erabiliz, eskaintzaren sozializazioa egin ahal izango dute, herritar gehiagorengana heltea bideratuz. Aurreko eszenatokiak 20x9 metro zituen, eta berriak 12x14 metro izango



Maiatzaren amaieran lanak nahiko aurreratu zeuden, eta lurra jarrita zegoen. NOELIA LATABURU

EKITALDIAK ▶

UZTAILAK 28

20:15. Euskadiko Gazte Orkestraren kontzertua.

ABUZTUAK 4

19:30. *Le vasque, argiaren mendeko musika eta dantzak*. Ensemble Diatessarón: antzinako instrumentuak; erregelak: dantza historikoen tailerra; Peio Otano: koreografoa.

ditu; sakoneran, 14 metro izango ditu oraingoak, aurrekoak baino 5 gehiago; eta zabaleran, 8 gutxiago. Helburuetako bat eszenatokiari ahalik eta etekin handiena ateratzea zen proiektuaren asmoa.



Leidor, apirillean, oraindik eszenatoki gabe. E. EZEIZA

Aldaketa nabarmenak

Erredakzioa ▶ Aldaketa nabarmenak jaso ditu Leidor areto ezagunak; orain, inoiz baino gehiago, «kultur erreferente» izateko helburuz. Hala, lanak, nagusiki hiru ardatzetan oinarritu dira: erosotasunean, egungo beharretara egokitzean, eta trantsizioan.

Halaber, ezinduentzat eta tamaina arazoa duten pertsonentzat atondu dituzte sarbidea eta hainbat eserleku. Orotara, 880 eserleku izango ditu Leidorrek eta 18 bereziak izango dira. Sarbiak ere albotara jarri dituzte, arrapala batzuekin. Eta, «erosotasuna areagotzeko», eserlekuen arteko tartekak zabaltu dituzte, 20 zentimetro gehiagorekin.

Leidor zaharrak ikusentzuleengandik jaso izan zituen kritiken artean, tenperaturarena aipatzeko da; izan ere, «kanpoko eguraldia nolakoa, barruko tenperatura halakoa». Bada, oraingoan klimatizazio sistema ezarri dute. Eszenatoki gainera igotzen zirentzat, aldiz, akustika zen arazo larriena. Hori dela eta, sabai berriak ezarri dituzte.

Joan den urteko azaroan hasi ziren eraiketa lanak. Berrikuntza hauek hornikuntza eta eszenatokia hobetzeko asmoarekin hasi ziren. Lan hauetan Chemtroll Division Teatro S.A. enpresa aritu da, hasiera batean 730.764,74 euroko aurrekontuarekin. Bigarren atala eserleku eta palakoei dagokiona izan da; honen instalazioaz Ascender S.L. enpresa arduratu da, 182.222 euroko aurrekontuarekin. Barneko lanen azken atala altzari eta osagaien hornikuntzari dagokio. Lan hauek Bigara, Equipamiento de Oficina S.L.-k egin ditu, 22.092,61 euroko kostuarekin.

Eraikinaren barneko obrez gain, kanpoan dagoen Gipuzkoako plazan ere berrikuntzak egin dituzte, itxura berri bat emanez inguruari. ◀

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Osakidetza. Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

Diputazioak. Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaintzaileak behar ditu. 943 313782.

Laborategi teknikariak. Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

Liburutegi laguntzaileak behar dira

zenbait udalbetan. 943 313782.

Administrari laguntzaileak. Anoeta, Beasain, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro... udalbeetan administrari laguntzaileak behar dira. 943 313782.

Peoiak, garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaitez: 943 313782.

Haur zaintzaileak, hezitzaileak. Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

Peoiak. Udalbeetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre.

943 313782.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa. 943 313782.

TOLOSA ▶ KULTURA

El Gran Ballet Argentino taldea gaur, Gau Giroko saioan

22:30etik aurrera, Euskal Herria plazan eskainiko dute saioa, Anjel Tapiaren zuzendaritzapean



Dantzariak, aktoreek eta musikariak osatzen dute taldea. HITZA

NOELIA LATABURU

Uda gogorra izaten ari da aurtengoa eta lo egitea ere askotan nekeza da tolosarrentzat. Bada, gautxori horiek izango dute gaur, behinik behin, kalea irteteko aitzakiarik. Izan ere, Tolosako Udaleko Kultur sailak Gau Giroko emanaldi berria antolatu du, 22:30etik aurrera.

Hala, ikus-entzuleak Argentinaino eramango dituen

dantzak hartuko du Tolosako Euskal Herria plaza; izan ere, bertan El Gran Ballet Argentino taldearen saioa izango da ikusgai. Migel Angel Tapiak zuzentzen du musika eta dantza argentinarrak uztartzen dituen Argentinako folklore talde hau. Helburua «Argentinako kultura zabaltzea» dela dio zuzendariak, antzinako dantzaldiak «era ikusgarrian» antzeztzen dituztelarik. 1963an sortu zen El

Gran Ballet Argentino eta orduetik munduko herrialdi ugari bisitatu dituzte, guztietan ere arrakasta handia lortuz. Dantzariak, musikariak, abeslariak eta aktoreek osatzen dute taldea, «Argentinako sustraiak mundura zabaltzeko». 1984. urtera arte Argentinan bertan eskaini zituzten saioak; eta, behin bertan finkatu zirenean, munduko herrialde guztietara barreiatu zuten euren kultura.

Abuztua ere, atsedenek gabe

Datorren hila ere ate joka da dagoeneko. Askorentzat opor garaia da, baina herrian gertatzen denik ere bada. Haietaz Gau Giroko beste hiru saio izango dira. Oraingoan zineak hartuko du lekukoa eta, abuztuaren 8an eta 9an, *Aupa Etxebeste* eta *Plan Oculito* filmak izango dira ikusgai, hurrenez hurren, Amaro zuzen. Bi egun beranduago, abuztuaren 11n, ostiralarekin, Plaza Berriari Matt Hardingek kontzertua eskainiko du. Estatubatuarak blues, rock 'n' roll, country eta jazz doinuak landuko ditu.

2006ko Gau Giroko azken emanaldia Macjearas taldearen eskutik garatuko da. Fronton kafetegian izango da, hain zuzen ere, irailaren 1ean. Nueva Orleans-eko banda honek jazz musika aurkeztuko du Tolosan.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Harizpe elkarteak Fuengirolara irteera antolatu du, irailerako

Txartelak salgai izango dira elkartearen bertan, irailaren 25era bitarte

ERREDAKZIOA

Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak Fuengirolara (Espainia) bidaiara irteera antolatu du, irailaren 30etik urriaren 14ra bitarte. Ez bazkideek 516 euro ordaindu beharko

dute eta bazkideentzat 510 eurokoa izango da salneurria. Bidaiara joateko interesa dutenek irailaren 25a baino lehen eman beharko dute izena, elkartearen bertan. 100 euro arretatu beharko dituzte izena ematerakoan, eta txartela jasotzerakoan gainontzekoa eman beharko du.

Irteera irailaren 29an izango da, 22:00etan, San Franzisko-tik. Txartelak autobusa, egonaldia, mantenu osoa, bidaiari asegurua eta gidari-laguntzaila barneratzen ditu.

TOLOSA ▶



«Giro ona» izan zen txapelketako gakoa. N. URBIZU

Bonbereneako I. Futbito Txapelketan «maila ona»

Errekalde taldekoak gailendu ziren finalean 4-3koarekin, Txoko-Txiki 2 taldearen aurka

ERREDAKZIOA

Errekalde taldeak irabazi zuen iragan larunbatean jokatuako Bonbereneako I. Futbito Txapelketa. Finalean Txoko-Txiki 2 taldekoak izan zituzten aurrez aurre eta 4-3koarekin amaitu zen partida, Bonbereneako futbol zelaian. Txapelketako urrezko bota, berriaz, Txoko-Txiki 2 taldeko Kepa Arozena jokalaririk eraman zuen, egun osoan zehar 8 gol sartu zituelarik.

Finaleko norgehiagokara

zaletu ugari hurbildu zen, «bonboak, turutak eta mota guztietako gailuekin». Antolatuzaileen esanetan, «giro ezin hobea izan zen egunez eta parte hartu zuten taldeek ere maila ona erakutsi zuten».

Bonbereneatik eskerrak eman nahi izan dizkiete «festa egun honetan hurbildu zirene guztioi eta, bereziki, Enrike Gomez Realeko talde txikieta-ko entrenatzaileari eta Gorka Goikoetxeandia Tolosa CFko jokalaritari, epaile lanetan egoniko laguntzagatik».

LEABURU-TXARAMA ▶

Larresorora joateko izen-ematea gaur bukatuko da

Igande honetan egingo dute irteera; zintzur bustitzea, bazkaria eta zozketa izango dira

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, Larresorora joateko aukera izango dute leabuarrek igandean, hilaren 30ean, Ote Lore elkarteak antolatzen duen Harritzko Zubiko bazkarira. Izena emateko azken eguna bihar izango da,

eta interesatuek 943 67 59 31 telefono zenbakira deitu beharko dute. 10:15ean aterako da autobusa Leaburutik eta 10:30ean Txaramatik. Eguerdi partean Zintzur bustitzea egingo dute eta 13:30ean bazkaria; 18:00etan, berriaz, zozketa eta talo jatea izango dira.

ZABALA
DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTZA

VILLABONA ▶ SANTIO JAIK



Santio jaien erdia igarota, rock kontzertua izango da gaurko ekitaldi nagusia

Erredakzioa ▶ Badoaz aurrera Santio jaiak, eta egitarauaren erdia igarota, gaurko ekitaldi nagusia Zea Mays taldearen kontzertua izango da. Hori gauean izango da, baina egunean zehar haurrek sokamuturra izango dute eta txirrindularitza jaiak arratsaldean. Onddo Gazte Asanbladak, bere aldetik, Gaztetxearen Eguna antolatuta du: ume jolasak, bertso bazkaria, Jimmy Muellesen kantaldia, afaria, La Perorata Circoren ikuskizuna eta gautekea Dr. Zanbrakerin. Atzo ekitaldi andana izan zen festetan,

Ardoi eta Hazparne herriko pilotarien arteko joko garbi partida, adibidez. Joko erakustaldia eman zuten bi taldeek (ezkerreko argazkian). Herritar ugari parte hartu zuten beste ekitaldi bat mus txapelketa izan zen (eskuineko argazkian). Txistulari plazan Auskalok *Skatroiak* ikuskizuna eskaini zuen eta ondoren Eresargi Txiki abesbatzakoek kontzertua eman zuten, mozorrotuta eta koreografia eta guzti. Hartu arnasa, oraindik gelditzen da eta zer egin eta ikusi santioetan. I. GARCIA

ANOETA ▶ PILOTA

Federatutakoen eta eskolarako mailakoen artean bereizketa

Udal Pilota Eskolak eskolaratean ariko direnak hartuko ditu eta Kuku elkarteak federatu bezala jokatu nahi dutenak

KM
kulturaren

Koldo Mitxelena Kulturunea
Lindetza kalea 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 112 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK

GLAS-KULTUR
Zer gertatu zen gardentasunarekin?

Uztailaren 13tik irailaren 23ra

XAVIER ARENÓS-MARC BAUER-DENIS BEAUBOIS-FRANÇOIS BUCHER-CSÖS-MANNAH COLLINS-OCTAVI COMERON-DO-HO SUH-DOMÉNEC-EVENTSTRUCTURE RESEARCH GROUP-ANDREAS GURSKY-ANNA MALAGRIDA-INIGO MANGLANO-OVALLE-ANTONI MUNTADAS-ALEXANDER PILIS-ORIT RAFF-PABLO RIVERA-THOMAS RUFF-GREGOR SCHNEIDER-EFRAT SHVILY-FRANK THIEL-TIMM ULRICHS-URO-JAVIER VALLHONRAT-ALBERT VIDAL-ANTON VIDOKLE

ORDUTEGIA
asteartetik larunbatera:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igande eta jaiegunetan itzita
Bisitak gidatutako taldeentzat:
Tel. 943 112 756 / 667 346 025

Gipuzkoako Foru Aldundia
Departamentu Ordean de Gipuzkoa
Departamentu Ordean de Gipuzkoa

IMANOL GARCIA

Gipuzkoako Pilota Federaziotik kirol horretako zenbait elkarteri aholkularitza eskaintzen ari zaie beraien estrukturalazioan laguntzeko. Anoetako Kuku elkarteak da horietako bat. Federazioko Maider Mendizabal anoetarra da aholkularitza hori egiten ari dena: «Pilota elkarteak herri guztietan daude, eta ahal dutena egiten dute. Gure asmoa hainbat arlotan laguntzea da: udaletxearekin harremanak, prestatzaile bat lortzea edo dagoena formatzea, diru laguntzak lortzea... Nola-bait esateko, elkarte *ideala* sortzen lagundu».

Kuku elkartearekin lotutako lehenengo lana Udal Pilota Eskola berregituratzea izan da. «Orain arte eskolaren baitan eskolaratean aritzen zirenak eta federatutako pilotariak zeuden, denak batera. Orain bannandu egin da», dio Mendizabalek. Horrela, bi bide sortu dira. Alde batetik, eskolaratean ariko direnak. Zortzi urtetatik



Udal Pilota Eskolako pilotarien arteko partidak, herriko festetan. HITZA

16ra bitartean izango da, eta horren kudeaketa Udalak erango du. Bestea, federatuen taldea izango da, eta Kuku elkartearen esku egongo da.

Eskolarako mailan parte hartzeko izena emateko aukera irekita egon da eta dagoeneko 23 haurrek eman dute izena. Irailean ere beste aukera bat izango da izena emateko. Men dizabalek nabarmetzen duela eskolarako. Manex Arrieta prestatzaileaz gain, beraz, begirale bat izango da, «kadete mailako pilotariren bat, seguruenik». Entrenamendu saioetan bi zatitan banatuko dute frontoia eta begiralea atzeko

zation izango da talde batekin, Arrieta aurreko aldean beste talde batekin aritzen den bitartean.

Federatuei dagokienez, hamabi urtetik gorakoek hartuko dute parte, hau da, infantiletik aurrera. «Kuku elkartearen helburua federatu bezala jokatu nahi duenari bere mailaren arabera formakuntza eskaintzea da. Horrez gain, Federazioak teknikarien formakuntza eskaintzeko asmoa du», gaineratu du Mendizabalek. Markox Landa izango da prestatzailea, eta irailaren hasieratik entrenamendu saioak egingo dituzte, hil horren bukaeran dagoeneko txapelketak hasiko baitira.

AMEZKETA ▶

**Joxean Tolosa
pilota partidetakoa
emaitzak**

Joxean Tolosa Pilota Txapelketak aurrera jarraitzen du. Kadeteetan, Bolinagak eta Zelaietak jokaturakoa 18-7 bukatu zen. Gazteen artekoan, Mitxelena-Albaradoren, 5-18. Nagusietakoan, Elizalde 18, Elurbek 10. Larunbatean jokaturakoen artean: nagusietan, Belokik 5, Irurretak 18; Mendiluzek 18, Agirrek 11; Landiribarrek 18, Geretak 8. Kadeteetan, Albi-suk 3, Agirianok 18; Galarragak 16, Nuñezek 18.

MERKATARITZA ▶

**Diru laguntzak
jasotzeko epea
zabalik dago**

Tolosaldeko merkatariei zuzendutako diru laguntzak jasotzeko epea zabaldu du Merkataritza Laguntza Teknikorako Bulegoak. Baldintzen zein informazio gehiagoren berri jakiteko, edo eskaria egiteko 943 16 06 73 telefono zenbakira deitu behar da.

ANOETA ▶

**San Inazio
bazkaria antolatu
du Alkartasunak**

Alkartasuna Biltokiak San Inazioko bazkaria antolatu du hilaren 31n, 13:30ean, haien egoitzan. Menuak 18 euro balio ditu. Kafearren garaian, San Inazioko martxa abestuko dute. Ondoren, dantzaldia egingo dute. Izena emateko Alkartasuna Biltokira jo behar da 18:30etik 20:00etara, eta bihar da azken eguna. Bestalde, podologo egongo da gaur zortzi, Alkartasunan, 14:00etan. Kontsulta hartzeko jubilatuen egoitzan egin behar da.

ANOETA ▶

**KZguneko
tutorearen bisita
gaur, 16:00etan**

KZguneko tutorearen bisita izango dute gaur, 16:00etatik 20:00etara. *Fagor gida gastronomikoa* mintegia eskainiko du, 17:00etatik 18:00etara. KZgunea itxita egongo da abuztuan eta irailaren 5ean irekiko dute.

ALTZO ▶ JAIK

EGITARAU ▶

BIHAR

18:00. Jaien hasiera, buruhandi eta herriko txistulariekin.

Ondoren. Artea eta Alurr dantza taldeko gaztekoen emanaldia.

20:30. Zikiro jatea herriko frontoian.

00:00. Kupela taldea goizaldera arte.

LARUNBATA, 29

11:00. Marrazki erakusketa.

12:00. Bizikleta festa.

15:30. Mus Txapelketa azkarra herritarrentzat. Izena emateko epea 16:00etan bukatuko da.

Ordu berean. Plater hauskata herrikoia —antolatzaileak ez dira ezbeharren arduradun egingo—.

17:00. Ume jolasak.

Ondoren. Baliarraingo astoak eta merienda.

20:30. Sagardo dastaketa, Jokin Sorozabal eta Iker Zubeldia bertsolariekin (kaxola bakoitzak berea eraman beharko du).

00:00. Desordutan, Mendeku ibuxa, Gartzen eta Harrika taldeen eskutik kontzertuak, goizaldera arte.

IGANDEA, 30

12:00. Txakoli probaketa.

Tartean. Toka Txapelketa herrikoia.

17:00. Pilota partidak frontoi berrian. Kadeteak:

X. Lobregat - I. Erauskin eta I. Lobregat - A. Galarra. Jubenilak: A. Alonso - M. Artola

eta X. Ibaguren - I. Olano. Etorkizunekoak: M. Olaetxea eta U. Renobales,

lau t'erdikoan.

19:00. *Neska politik, artasoro alaiak* antzerzlana elizan.

22:30. Bertso jaialdia: Arzallus, Egaña, Elortza, Irazu, Iturriaga eta Lujanbio.

Gai-jartzailea: herriko bertsozaleak.

00:00. San Inazio eresia.

Ondoren. Sugan eta J&K taldeen emanaldia, goizaldera arte.

ASTELEHENA, SAN INAZIO

08:30. Goiz eresia herriko txistulariekin.

10:00. Meza nagusia.

Ondoren. Herriko trikitilari eta txistulariak.

Jarraian. Jubilatuen hamaiketakoa.

11:30. Erlojuaren aurkako afizionatu mailako Txirrindularien XV. Altzoko Igoera (Calcinor saria izango da).

18:30. Herritarren arteko apustua.

Ondoren. Kantaldia Jone bakarariaren eskutik.

00:00. Laiotz taldearekin dantzaldia izango da goizaldera arte.

ASTEARTEA, ABUZTUAK 1

18:30. Herritarren arteko pilota txapelketaren finalak.

21:00. Zahagi ardoa.

Ondoren. Ansozregi eta Larraña trikitilariak, goizaldera arte.

NEREA URBIZU

Bihar hasiko dira Altzoko jaiak. Eta, hasteko, buruhandien eta herriko txistularien saioa izango da, 18:00etan. Eta ondoren, Artea eta Alurr dantza taldeko gaztekoen emanaldia ikusteko aukera.

Zikiro jatea ere izango da pilotalekuan. 200 lagunentzako dago lekua, eta dagoeneko txartel gehienak saldu dira. Nahi izanez gero, biharko afarira joan nahi duenak, Arandia jatetxean eros dezake oraindik txartela, 18 eurotan.

Bestalde, musika talde ezagun asko izango dira aurtengo festetako bost egunetan zehar: Kupela bihar; Tolosako Desordutan taldea eta Mendeku itxua, besteak beste; igandean Sugan eta aurreko Irailerako 6 taldea zen boskotea: J&K —jo eta hanka—; eta astelehenean Laiotz plaza talde ezaguna ariko da.

Bertsolariak festetan ez dira faltako: izan ere, larunbatean, 20:30etik aurrera, sagardo dastaketarekin batera Jokin Sorozabal eta Iker Zubeldia bertsolariak izango dira. Baina ez da saio bakarra izango, igandean ere jardungo baitute beste hainbat bertsolari, jaialdi batean, 22:30ean: Amets Arzallus, Andoni Egaña, Igor Elortza, Jesus Mari Irazu, Unai Iturriaga eta Maialen Lujanbio igoko dira taula gainera. Gaiak jartzen herriko bertsozaleak ariko dira.

Bestalde, azpimarratzekoa da ere astelehenerako antolatu duten herritarren arteko apustua, 18:30ean hasita. Herri kiroleko probaz gain, hainbat bitxikeria ere egingo dituzte. «Probak xelebreak izango dira», aurreratu dute antolatzaleak.

Buruhandiak eta txistulariak, hasteko

Bihar hasiko dira saninazioak Altzon, egitarau aberatsari jarraipena zikiro jateak eta Kupela taldeak emango diote



laz txakolin probaketa izan zen: aurtun ere izango da, eta baita sagardo dastaketa ere. NOELIA LATABURU

Aurtengo nobedadeak

Aurtun, *Neska politik, artasoro alaiak* antzerzlana izango da ikusgai festetan. *Goenkale* telebista saioko bi aktore ibiltzen dira horretan, Arantxa Gurmendi eta Jon Gaubeka. Hau elizan izango da igandean, 19:00etan. Maite Agirre zuzendariaren antzezlana honek bi mundu ezberdinetako gaiak jorratzen ditu.

Bestalde, Jone bakarlari anotarra ere izango da astelehenean, arratsaldean, herritarren arteko apustuaren ondoren.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Zer iruditzen zaizu Voith-Gorostidi ekebizitza tasatuetako zozketan parte hartu ahal izateko jarritako baldintzak? Ezagutzen al dituzu? Ados al zaude? Uste duzu eskualdean dauden behar guztiak asetuko dituztela? Eman zure iritzia eta beste irakurle batzuek diotenarekin alderatu, gure webgunean.

iragarki laburrak ▶

LANA
Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.
Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

BESTERIK
Txakurkumeak. Artzaian txakurkumeak oparitzen ditut. Gaez deitu, 948 50 44 81.

AIZKORA ▶

Otaño eta Mujika ibartarrak Gipuzkoako txapelaren bila

Gipuzkoako Aizkolari Txapelketako finalean lehiatuko dira Aranbarri, Lasa, Ugarteburu eta Aierberekin batera, astelehenean, Donostiako Loiola auzoan



Jexux Mari Lasa eta Unai Otaño, Ibarra, elkarren aurka aritu ziren apustu batean. I. TERRADILLOS

UNAI OTAÑO ▶ AIZKOLARIA

«Aurrean ibiltzea oso zaila izango da, ez bainago maila onean»

Unai Otaño (Ibarra, 1977) maila ona erakutsi du kanporaketetan, baina hala ere, Gipuzkoako Aizkolari Txapelketako finalerako ez da itxaropentsu ageri, sinistisak jota, ez baitago azken egunetan mailarik altuenean.

Asteleheneko finalari begira, nola ikusten duzu zeure burua?

Aurrean ibiltzea oso zaila izango da, azken asteetan ez bainago maila onean, eta pena handia sentitzen dut, gustura ari bainintzen kanporaketetan, sasoiaren nengoen. Dena den, ahal dudana egingo dut.

Nor ikusten duzu finala irabazteko moduan?

Ugarteburu eta Lasa iruditzen zaizkit txapela janzteko indartsuenak une honetan. Beraiek dira faboritoak. Hala ere, uste dut sorpresa edozeinek eman dezakeela, ez baitago abantaila handiegirik.



I. T.

Gipuzkoako Txapelketaren ostean, zein izango da hurrengo hitzordua?

Euskal Herriko 2. mailako Txapelketa izango da hurrengoa. Irala amaieran jokatuko da finala, eta horretarako gogor entrenatzen egongo naiz. ◀

JEXUX MARI MUJIKA ▶ AIZKOLARIA

«Finaleko aurkariak kontuan hartuta, aukera gutxi ditudala uste dut»

Jexux Mari Mujika (Ibarra, 1977) animoz ederki aurkitzen da Gipuzkoako Aizkolari Txapelketako finalean lehiatzeko. Hala ere, «nahiko zaila» ikusten du «dauden aurkariengatik» sailkapen ona lortzea.

Astelehenean jokatuko duzu final handia. Zer egitea espero duzu?

Uste dut, izango ditudan aurkariak ikusita, aukera gutxi ditudala, baina, dena den, ahal dudana egingo dut. Animatuta noa finalera. Hala ere, kontuan hartzekoa da finaleko egunean nahiko nekatuta egongo naizela, aurreko bi egunetan aizkora erakustaldiak izango baitituz, eta kilometro ugari eginda joango naiz finalera.

Nork du, zure ustez, irabazteko aukera gehien?

Gipuzkoako Txapelketan garai denak bakarrik du mailaz igotzeko aukera, eta uste dut hori Unai Otaño izango dela,

IÑIGO TERRADILLOS

San Inazio Egunean, hilaren 31ean, jakingo da nor den aurtengo Gipuzkoako bigarren mailako aizkolaririk onena. Izan ere, egun horretan, Donostiako Loiola auzoko pilotalekuan izango da Aizkolari Txapelketako finala, 18:00etatik aurrera.

Beasaingo eta Legorretako kanporaketetan txartela lortu zuten sei aizkolari lehiatuko dira, eta tartean dira Unai Otaño eta Jexux Mari Mujika ibartarrak. Hauekin batera, Jabier Aranbarri *Elorriaga* (Zumarraga), Jexux Mari Lasa (Legorreta) eta Iñaki Aierbe (Ataun) lehiatuko dira. Egin beharko duten lana, berriz, 4 kanaerdiko (metro bat eta 25 zentimetro) eta 60 ontzako (metro bat eta 39 zentimetro) bi enbor ebakitzea izango da.

TOLOSA ▶

Argindar mozketari bihar, 00:00etatik 03:00etara

«Bezeroei zerbitzu hobea emateko lanen ondorioz», Tolargi instalazioetan hobe-kuntza eta mantenimendu lanak egiten ari da; hori dela eta, bihar argindar mozketak egingo dituzte, 00:00etatik 03:00etara, Gudari kaleko 5 zenbakian, Oria kaleko 5 eta 7an eta San Frantzisko kaleko 39, 39A, 41 eta 41 A zenbakietan.

TOLOSA ▶

Abuztuan irekita egongo da Haur Liburutegia

Tolosako Errotako Haur Liburutegia aurten abuztuan ere irekitzea erabaki dutela jakinarazi dute. Hain zuzen ere, goizez irekiko ditu bere ateak, 10:00etatik 13:00etara. Abuztutik aurrera bere ohiko ordutegia mantenduko du.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egoitza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320



I. T.

maila onean ikusi baituz azken kanporaketetan.

Gipuzkoako Txapelketaren ostean, Euskal Herrikoa.

Bai, eta gustura nago finalerako sailkatzea lortu nuelako. Udan lan luzeak entrenatzen ariko naiz, batez ere. ◀

ARESO ▶ SOKATIRA

Aresoko taldea etsiak hartuta dago epaileen erabakiak direla eta

600ekoan laugarren egin du; 560ekoan azken saioa
Areson jokatzekoa dute larunbatean, bigarren dagoelarik

JAIONE ASTIBIA

Lanez betetako asteburua eta gogorra suertatu zaio Aresoko sokatira taldeari, bai hiru egunen buruan bi jardunaldi jokatu behar izan dituelako (600eko azkena larunbatean eta 560eko bigarrena herenegun) eta bai bi saio horietan bereziki epaileek jokatu duten papera jasatea egokitu zaielako. Halaxe baieztatu diote TOLosaldeko eta LEITZALDEKO HITZARI taldeko kideek.

«Epaileek hartu dituzten erabakiekin ez gaude batere konforme. Tiraldietan gogor aritu gara eta paliza handiak hartu ditugu. Baina ikusi dugu epaileen erabakiak ez direla zuzenak izan, oso pitaje txarra egin dutela, eta erabaki horiek tarteko ez duela onenak irabazten, ez dela justua dena gertatzen, talde indartsuenak irabaztea, alegia, eta horrek ilusioa ere kendu egiten du», adierazi dute.

Aitatutako azkeneko bi jardunaldi horietan, izan dute hori egiazatzeko biderik arrosorrek, azaldu dutenez. Izan ere, esate baterako, Azpeitiko 600ekoan, Gaztedi Arekin hasia egokituta, «hasi eta berehalakoan 2 falta adierazi zizkiguten, batere abisurik gabe, eta ez zirenak, gainera. Amorrarazi, haserretu eta horrela disgustura tiratzen da», azaldu dute. «Atzoko [herenegungo] 560ekoan ere, Goiherri Arekin ari ginela, guri bi falta adierazi zizkiguten azkar eta beste aldeko, berriz, batere ez lurrean barrena zebiltzen arren.



Areso taldea lanean. J. ASTIBIA

Gure entrenatzaileak protesta egin zuen eta hirugarrena adierazita, tiraldia kendu ziguten», zehaztu dute.

Epileen erabaki «okerrak»

«Goiherri eta Gaztediren arteko tiraldietan berdin, lehenbizikoen alde nabarmen» egin omen zuten. Gogor eta argi adierazi dute «kasu honetan Aresoko saiorako gauzak erabakita» utzi zituztela epaileek «euren erabaki okerrekin». Bestela, «hiru taldeak berdin geldituko ginen», ziurtatu dute. «Guk ez dugu esaten faltarik egiten ez dugunik; baina bai nabarmen epaileek ez dituztela irizpide berak erabiltzen guri edo beste pitatzerakotan», zioten, haserre, Aresokoen. «Horrela, sokari baino gehiago, epaileak zer eginen duen erreparoa, ez da behar bezala tiratzen, tentsio batean; ez gaude batere gustura».

Kontuak kontu, 600 kiloko

SAILKAPENA ▶

560 KILO

Saio baten faltan.

Taldea	I	II	Guzt.
1. Goiherri A	5	5	10
2. Areso	3	4	7
3. Gaztedi A	4	3	7
4. Goiherri B	1,5	2	3,5
5. Gaztedi B	1,5	1	2,5

txapelketak badu irabazlea. Goiherri Ak bereganatu zuen txapela, nahi eta eguneko saioan punturik gehien atera zituen taldea Nuarbe izan. Bizkaitarrek aurreko jardunaldietan eskuratutako puntuez baliatuz lortu zuten sari gorena. Azpeitiarrak bigarren gelditu ziren; eta hirugarren, Gaztedi Akoa. Hauen atzetik gelditu zen Aresoko taldea.

Eta aurtengoz Euskal Herriko Sokatira Txapelketak azken saioa ere izanen du, 560 kiloko pisuan, Areson; etzi, 17:00etatik aurrera, plazako larratxean. Honera, Goiherri A heldu da punturik gehienarekin (10 puntu), etxeko taldea hurrena dela (7 puntu), Gaztedi Arekin berdinduta. Horrela gelditu ziren herenegungo jardunaldien ondoren kontuak.

Areso etxean erakustaldi egokia ematera doa, euren usiez «erabaki samarra» dagoen jardunaldira. Emaitzak eta lehiaketa «bidegabeak» izan diren arren, ordea, taldeak egin duen lanaz oso gustura eta arro daude: «Prestakuntzetan-eta oso ongi aritu gara, eta taldea bikain aritu da lanean arlo horretan», zioten.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Atekabeltzaren irekiera festa larunbatean

Urtebetean moldaketa lanetan aritu dira Gaztetxean eta orain ekitaldiei ekinen diete



Atekabeltzen irekiera festa egingen dute. J. ASTIBIA

J. ASTIBIA

Larunbatean, etzi beraz, egingen dute Atekabeltz Gaztetxearen irekiera festa Leitzako gazteek. Hain justu aurreko astean urtebete egin zuten hor lanean hasirik eta horrekin bat eginez, egoitzaren inaugurazioa egingen dute, horretarako antolatu duten egun oso dituzte festarekin.

«Gaztetxea bera nola presatu dugun ikustera eta, noski, irekierarako antolatu diren ekitaldi guztietan parte hartzeko gonbidapena, herri guztiari egin nahi diogu», adierazi dute Atekabeltzetik.

Urte honetan lokala moldatzen aritu dira. «Berrikuntza lanetan aritu gara orain arte: zorua, egurrak agerian utzi eta barnizatu, aretoen banaketa berria egin... 20-30 gazte, astez batzuk eta besteak asteburutan, auzolanean aritu gara», zehaztu dute. Behin Gaztetxea moldatua dutelarik, «funtzionamenduari ekinen diogu aurrerantz», azaldu dute: «Beste dinamika batekin hasiko gara lanean orain, festei begira ere egitaraua prest dugu».

ATEKABELTZEN IREKIERA ▶ EGITARAUA

12:30. Plazatik kalejira, Atekabeltzera.
Ondoren. Harrera.
13:30. Bazkaria.
17:30. Olinpiadak.
20:00. Poteoa herrian barrena.
Ondoren. Luncha.
23:00. Kontzertua.

Beraz, Atekabeltz Gaztetxearen irekiera festan denetik izanen dela iragarri dute. Eguerditik berehala, herriko plazatik aterata, jendea bilduz, kalejira egingen dute hara, han irekierako ekitalditxoak egiteko. Bertan egingen dute bazkaria ere. Aitatu dutenez, otordurako txartelak Gaztañaga eta Torrea tabernetan daude salgai, 6 eurotan, gaur iluntzera arte; menua ere zehaztu dute: sarrerak, entsalada, oilasko errea, yogur krema, kafea eta kopa.

Arratsaldean, berriz, Goizuetako gazte koadrila ere etorriko omen delarik, lagunartean «lotsak kentzeko joakoak» egingen dituzte, eskolotako harrizko zelaian.

Iluntzetik aurrera berriz ere jai giroa nagusituko da eta herriari barrena trikitalariekin poteoa eginda, Atekabeltzen luntza eskainiko dute, «akaso ezustekoren bat ere» izanen omen delarik, gehiago zehaztu gabe; «bestela ez litzake hala izanen». Eta gaueko haizeetatik aurrera, kontzertua eskainiko dute. Hiru talde omen dira ari beharrik. «Tallako El Chandrio, Ordiziako beste bat eta Kataluniako, hirugarrena», eman dute aditzera.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

DANTZA

Tolosa. Gran Ballet Argentinoren emanaldia. 22:30ean, Euskal Herria plazan. Gau Giroren barruan.

DEIALDIAK

Alegia. Parrokiak urteroko erromesaldia antolatu du Arantzazuko santutegira abuztuaren 6rako, igandea. Izena emateko 943 65 40 72 telefono zenbakira deitu behar da.

Tolosa. Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa. Bihar, 11:00etan, Kultur Etxean. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.

Tolosa. Oargi mendi elkarteak La Munia ingurura (Pirinioak) irteera antolatu du hilaren 29, 30 eta 31rako. 21 urtetik beherakoek %20ko deskontua izango dute. Informazioa eta izen-ematea 637 83 03 80 telefono zenbakian.

Tolosa. Kirol elkarteek 2005eko memoriari aurkeztu behar dituzte Udalaren diru laguntza jaso ahal izateko. Horiek entregatzeko azken eguna hilaren 31 izango da, udaletxean bertan.

Tolosaldea. Tolosaldeko merkatariei zuzendutako diru laguntzak jasotzeko epea zabaldu du Merkataritzarako Laguntza Teknikorako Bulegoak. Baldintzen zein informazio gehiagoren berri jakiteko edo eskaria egiteko 943 16 06 73 telefono zenbakira deitu behar da.

ERAKUSKETAK

Alegia. Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan

izango dira ikusgai, Jubilatuen tabernan. **Hernalde.** Gregorio Lopezen lanak, Ostatuan ikusgai. **Tolosa.** Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan. **Zizurkil.** Eskultura erakusketa, Olentzo jatetxean.

JAIK

Villabona. Santio jaiak: 11:00etan, sokamuturra haurrentzat, plazan; 17:00etan, haur txirindularitza jaialdia plazan, Irrintzi elkarteak antolatuta; 23:00etan, rock kontzertua Zea Mays taldearekin.

MUSIKA

Tolosa. Euskal Herriko Gazte Orkestrak eskainitako kontzertuak inauguratu du bihar Leidor berritua, 20:15ean. 750. Urteurrena Fundazioak antolatuta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren 32. 112.

TELEBISTA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hinzaren errepasoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari*, Matraiaiko Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik
 22:00-23:00. *Gau bero*.

▶ HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Epelderen, Longaronen eta Mateoren lanak, Errotan

TOLOSA ▶ Errota tabernak herriko hiru artisten lanak bildu ditu antolatutako azken erakusketan. Hain zuzen ere, Ifñaki Epeldek, Jose Luis Longaronek eta Carmen Mateok egindako margolanak zintzilikatu dituzte tabernaren hormetan. Hilaren amaierara arte izango dira ikusgai. L. MONTES

AGURRAK ▶



ZORIONAK
 Aitaxo eta amatxo! Egun laster batean elkartuko garenekin. Eutsi goiari eta pabto goxo asko zuen sorginbo bihurriaren partez.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tarte
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi. **Zenbakia.** 240.a (2006ko uztailearen 21a). **Orrialdeak.** 22. **Tirada.** 5.000 ale. **Gai nagusia.** *Jon Iraola, imitazio artearen erakusle*. **Beste gaiak.** Txinbarri Txiki abesbatza, Tolosako izenen mapa, Ahotsak ekimena, Josu Agirre txirindulariari elkarrizketa, 750. urtemugako kontzertua... **Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea. ▶ Nafarroa etorbid., 6-behea. ▶ 943 65 50 04 ▶ galtzaundi@galtzaundi.com ▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri. **Zenbakia.** 261.a (2006ko uztailearen 21a). **Orrialdeak.** 28. **Tirada.** 2.500 ale. **Gai nagusia.** Villabonako Santio jaiak. **Beste gaiak.** Sahararrei harrera Adunan, Zizurkilgo Robles anaiak auto slalom-ean, Villabonako Garagardo Azoka, jaiak eskualdean, Asteasuko hirigintza arloko aldatetako, Santio egoitzako artistak... **Argitaratzailea.** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. ▶ Kale Berria 47, 3. esk. ▶ 943 69 64 50 ▶ aiurri@topagunea.com ▶ www.aiurri.com

hitza
 Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn praktikak egin nahi?
 Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioan lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua
Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz Kredituak baliozkotuko dira
 Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:
 Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
 tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info